

Ze barri?

1999
IRAILA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

33 zkia.

Urlatik Landetara

Elkarrizketa:

**Jesu Garmendia, Fakultateko
dekanoa**

Erreportaia:

Udaleko batzorde berriak.

Eskoriatzarrok munduan:

**Joserra Eskibel Pamirreko
dorreetan gora**



**Ongi etorria,
Ikasturte berriari.**

Pagalday
PAGALDAI
HARATEGIA



Gaztañadui, 15
 Tfnoa.:

Ondo pasa San Pedrotan!

R E L E

Faustino Legazpia

Tel. 943- 71 40 72

ANGEL Aseguroak


Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea • Tf. 943-715203 • ESKORATZA

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa gizarte-ekintza obra social



BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Herriko plaza ☎ 943 79 81 78
 ARETXABALETA

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura

SAKON DE BELLEZA
 OASUNA ETA EDERGINTZA



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
 Tfnoa.: 943 71 51 20



Esko Sport

*Kirola eta sport
 moda Leintz
 bailaran.*

Tel. 943 715296

**Cuenta Joven
 de Caja Laboral**
 El servicio
 más completo.

**Euskadiko Kutxaren
 Kontu Gaztea.**
 Zerbitzuetan
 osatuena.



CAJA LABORAL
 EUSKADIKO KUTXA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
 Tfnoa.: 943- 715061




TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
 ESPEZIALIZATUA**

EROSLE

HARATEGIA, FRUTATEGIA eta BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3
 Tfnoa: 943 714546



943 71 20 02




Industrias Olabarri, S.A.

Arana, 20 • 20540 ESKORATZA (Gipuzkoa)
 Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxes: 34-43 - 714061

ALDATZ Taberna

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

BAKAZINOTATIK BUELTAN

Hau eitten akabetan dotenerako, hemendik ordu erdi batera gutxi gora bhera, suerte gehixen daukienai ordu gutxittako Bakazinuek geratuko jate. Gutxi batzuk Setienbrien hartzeittuelako, desde luego sasoirik onena bakazinuok Euskal Herrixen pasau gure badie, bestela ikusi besteik eztauz eiteuskun egualdixek. Hala ta be beti geratuko jakie kontrakorriente fatien sentsazinue. Askotan pasetan dot gainera neure artien gehixenak ze puntutaraino disfrutauko dauien bakazinuekin, , ero dana gure umetasuneko domeka atsaldiek morukue izengo dan, gehixau kontetan euenien hurrengoko egunien astelhena zala, geraketazien ordu librieipaino. Eta horreik ordu libriok alperrik galdu eta azkenengo orduen deberiek eitten pasetagituenien. Futurizue izetie, osea, datorren etorkizunien eta zer datorkigun ikusten doun gauzetan bizittiek, presente txarretan ez desesperetako lagunketien bentajie emuteusku, baina baitte etorkizun txarrak toketan dana baino lhenau etorri, ta ondio ona dana arruinetako okasinuen desbentajie be.

Kasik mundu guztiek pentsetan dau presente ero etorkizun onenetaiko bat udie, bakazinuak diela. Milaka plan eitten die, denporia luziaua izengo dala eta soseguzau fango dala imajinetan dou, gure gauzak ordenan iphini hal izengoittugula, biajetako, deskantsetako, leiruteko, pelikulak ikusteko, eta musikia entzuteko, ligetako, abenturan bat eukitiko, txiripan bat pasetako, deportia ero jokuen eitteko, ilunkarak ikusteko, naturalezien soinuak entzuteko eta gehixen bat, bueltan zerbait kontetako eukikoula uste dou.

Eskribirutia gustetajakunoi urtien zihher atzera itxittugun proiektuak hartzeko denporia eukikoula pentsetan dou. Gurasuak euren seme-alabak gehixau ikusikoittuela uste daue. Andra-gizonak euredako denpora gehixau eukiko dauiera pentstan daue, hau azkenau euredako denpora gehixau eukittia gure badaue, jakina, alkarri gobaitteraiten eziputse, kasu

askotan ikusten dan moruen.

Eta barrez, eztauz ezertarako denporaik. Agostoko lelhengoko astia, hasieratik anka ein hal izen euienendako, preparatibuetan, eta leku barrixen asentetan ta ohittuten faten da. Geruau ta sarrixaua da jentiak, geldiketian dan momentuen, nekia sekula baino gehixau igertia, eta zenbat eta gehixau deskantsau, kantsauau enkontretia.

Lo asko eitten daue jo eta errebertaua dazenok, ta halako baten herritik alde ein hal izen euienok, baina hainbeste lo ein ondoren argi, despejauta egon biherrien, egun guztia kentzeusien lozorro baten egoten die, danetarako nagikeixiaz, dana kostetajate, etxeoandrak ezik, horreik sekula ezin dielako geldik egon. Izen be, tasistak, bonberuak, abogauak, medikuak, arotzak, igeltseruak, hojalateruak etab. ak huelga bat eitten dauienien ero ingo balaue, ez litzake ezer pasauko, bai, sektoren baten kaltiak izengo litzakez, baina ta etxeoandrak huelgia ingo balaue, ze pasauko ete litzake? Ba, gauza oso grabiak, seguru, eztaikt, i goel geratuko litzake mundua, ta munduak ez lixkio buelta gehixau emungo eguzkixai...auskalo! Atzen batien, zek eraiten dau ba mundua eguzkixen inguruen bueltak emuten ibiltia? Ba, i goel etxeoandren mobimentuak... eta nik ze dakitt...

Bueno ,ba total, mundu guztiak pasetan dauela bakazinuetaiko lelhengoko astia nagikeixa haundixenien ta horarixo barrira eitten , etxeoandrak ezien.

Bigarren astien oso normala da konfundiru ein garela deskubrirutia. Konfundiru ein garela danaz, nazinuaz, biajiaz, herrixaz, hotelaz,ero apartamentuaz. Oso egun txarrak izen leikez, hau zetan elejiru ete gauen, ero atzien itxi gittuen posibilidadiakin akordaixaz. Plaiian dauena, hainbeste jentekin iguinduta, mendi trankilakin akordetan, eta mendixen dauena, bakardade

haundixena sentiruta, itxasaldeko jai akuatikua galtzen dabilelakuen. Benezia ero Parisera faten danak, museuetan sartzeko ero kalietan ibiltteko espainolapaino ezittuelako alde guztietatik ikusten, biaje asko be selbatikuauaz akordetan, Karibe ero Baliko plaiak imajinaixaz. Baina Balira ero Sri Lankara fan dana, gutxira, gobaitteraindda dau eguzki eta areiak, postaleko bejatzinuen monotonixiahatik ta bere trajebainua be emungo lauke librerixia baten, zine baten, ero harrin bat ero kuadron bati begira egoteatik.

Hirugarren astia i goel onena izengo da, ta pozik bueltau gaittezen balixo dauena. Bakotxa daukenaz konformetan doia eta rutinara ohittuten. Hau kontsolu guztien hasieria izeten da. Gauzia eztauela hain txarto pentsetan hasten die beraniantioik eta benetan disfrutetan be hasten die. Gustoko ohitturak hartzeittue, lekura ta jentera eitten die, i goel lagunak eiteittue, udako ligen bat , abenturan bat, bueltan, tabernako ero soziedadeko danak entzun daixien altu kontetia mereziru dauen esperientzian bat dauke. Azkenien, pasautakuaz ahazketan die,nun egon leikezenaz paso eitten daue, eta datorrenak ezittu deprimiruten, betirako bertan geratu hal izengo balaue ero beste bizimoruik ezpalego moruen.

Eta hartan da hontan, laugarren astia ailegetan da, eta pasetan dien orduak eztie sekula bueltauko. Bat hasten da pentsetan zelakua ete dan hori lekuoi neguen: ez litxakigula han geraketaik gustauko pentsetan dou, baina hal izengo bagau... Eta konturaketagare eztauz ezertarako denporaik egon, apenas ezer. Eta orduen agerketan da gauzak bere onera ekarteittuen astelhena. Eta ezpagitz bueltauko? Ze pasauko ete litzake? Zerbait pasauko ete litzake, akaso? Dana dala, eztaikt hau zertarako eskribiru doten be, ya kasik inope ezpadauko lau aste bakazino.

D.M.III.na.



ESKORIATZA
Eskoriatzako Udalak diruz lagundutako aldizkaria
Euskara Batzordea


ZE BARRI?
Argitaratzailea: AXTROKI KULTUR ELKARTEA
Erredakzio kontseilua: Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez.
Kolaboratzailea: Aitor Urrutia, Asier Errasti.
Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk. • Aretxabaleta
Tirada: 2.000 ale Lege gordailua: SS - 200/99 ISSN: 1139-9856
"ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"



GATZAGA
Leinz Gatzaga Udalak diruz lagundutako aldizkaria

"Haurtxoteka", umeen txokorik kuttunena zabalik

Jose Arana Almen ikastolak laugarren urtez baina lehen eguneko ilusio eta gogoz, irekiko ditu urriaren 16an "Haurtxoteka" ko atea.



Maite, Aitor eta Iñaki, "Haurtxoteka" ko jolasak prestatzen aritu direneta kide batzuk.

Larunbatero, ikastolako haurren topagune kuttunena izango da "Haurtxoteka" eta bertan, eskulan dotoreak eginez edo ahozabalik ipuinak entzunez edo begiak itxi eta fantasiazko paradisu horietan murgilduz edo abesti gustokoenak kantatuz



Ikastolako haurrek gogoz ekin diote ikasturte berriari

edo... hamaika jolas, barre eta algara egiteko aukera izango dute haurtxoek.

Hilabete honetan "Haurtxoteka"-ri ekiteko azken xehetasunak finkatzen aritu dira fin-fin bertako ardura-

dunak (Aitor Gurudi eta Rosa Elizburu irakasleak eta begirale taldea). Lerro hauen bidez irakasleek begiraleen lana eta jartzen duten interesa eskertu nahi izan dituzte, ein handi batean Eskoriatzako gazte talde horri esker egiten baita posible guzti hau aurrera erabatea: << Begiraleek interesa erakusten dute honetan; batzutan umeak baino begirale gehiago etorri izan zaizkigu baina eurak ere haurrekin batera gustora ibiltzen dira>> aitortu zigun Aitorrek.

"Haurtxoteka" k orohar erantzun ona izan du eta hiru urtez larunbatero umeentzat ekintzak prestatzen ibili eta gero, gurasoek badakite nahi izanez gero larunbat goizean haurrak jolas egin dezan txoko bat dutela zain Jose Arana Almen ikastolan. Guraso-ak etxeko txikiak jasotzen dituztenean, aurpegiko irriparrean antzematen diete hauei "Haurtxotekan" jolasean gustura ibili direla eta hurrengo larunbatean berriz bueltatzen dira.

Laburrean:

Almeneko kiroldegian lurjauzi arriskua

Almen ikastolako kiroldegia atzean dagoen horma erortzen ari dela eta kiroldegiko zati bat, saskibaloiko kantxak dituen, itxita aurkitzen da ikasturtearen hasiera honetan. Eskoriatzako eta Aretxabaletako kiroldegiei eskaera egin zaie kirol instalazioak usteko, dena den, momentuz, Almeneko ikasleek bertako instalazioetan moldatu beharko dute.

Lehenago ere erori izan da horma hori eta horregatik, eskoriatzako udaleko Hirigintza batzordean proposatu da arazo larri hau konpontzeko proiektu zehatza egitea, horrela, arazoari behin betiko konponbidea emateko.

Azkenean, Musika Eskola Oktogonalera

Musika Eskola urteetan izan dugu beti jausteko arriskuan izan den ikastolaren eraikin zaharrean, baina, noizbait aldatu beharko zela bagegien, baina noiz? Eta nora? Azkenean, egoitza hau benetan egoera tamalgarrian dagoela eta han ezin daitekeela jarraitu konturatu da udala eta musika eskola frontoian dagoen oktagonaleran pasatzea egokiena izango dela erabaki du.

Irrintzi

Taberna

Tel. 943 71 46 83

carpinteria
leniz

AROZTEGIA

Tfnoa. 943 71 49 36

Toki Eder
Taberna

Oilasko erreak

943 715438

Sta Ana

Gozotegia -
Pasteleria

943 71 52 36

X. Mendi bizikleta martxa lanbropean

Urriaren 3an, Igandea, ospatu zen mendi bizikleta martxa. Eguraldi kaxkarrara edo eta Erreterian Kilometroak 99 jaia izatea, ez zen aitzakia izan bizikleta zaleentzat eta partaidetza dexentea izan zen, 104 lagun. Eskoriatzako 20 lagun animatu ziren eta aipatu parteartzaile gazteenak ere bertokoak izan genituela, Christian Romeo eta Mikel Errarte, biak ere hamairu urtekoak.

Ibilbideko seinaleekin bat baino gehiago despistatuta ibili zen baita eguerdian herriko enparantzara iritxi zen lehen txi-rindularia ere. Irundar bat hain zuzen ere, 26 urteko Martzel Tabia eguerdiko 12,30k aldera iritxi zen plazara. Eta plazara iristen lehen eskoriatzarrak, Sergio Frutos eta Jose Antonio Markaide izan genituen.

Aipatu zigutenez, lokatza zela eta ibilbidea ez zegoen batere samurra eta parteartzaile askok ibilbide erdia egitea erabaki zuten. Dena den, meritua, aitzakiak alde batera utzi eta parte hartzera animatu ziren guztiak dute.


Ibilbidea
bukatu eta
plazara iritxi
zen lehena,
Martzel
Tabia
irundarra,
lokatzez
blai eta
nekatu
aurpegi-
arekin.



Sergio eta Markaide goitik behera lokaztuta.

Jubilatuen omenezko jaialdia, jendetsua.

Aparteko eguna pasatzu zen Eskoriatzako jubilatuek urriaren 3an prestatu zitzaizen jaialdi honetan. Goizean mesa



nagusia en-tzun eta gero bazkaria izan zuten frontoian. Argazkian ikusten denez, herriko pilotalekua jendez gainezka izan zen. Bazkari honetan

elkarrekin e-gun atsegin bat pasatzeko aukera izan zuten. Gainera, bazkal ostean opariak eman zitzaizen eta ondoren dantzaldia izan zuten.

aspaldiko lagunekin mintzatu, garai batego kontu zaharrak eta ez hain zaharrak direnak ere, gogoratu eta

Laburrean

Kirola euskaraz Deba arroan sustraituz

Deba bailarako Euskara eta Kirol zerbitzuek sortutako "kirola euskaraz" programak ikasturte honetarako Deba arroan euskara eta kirola uztartzea dute helburu. horre-tarako bi ikastaro antolatu dituzte. Ikastaro horiek eskola, kiroltako monitore eta kirol taldeetako entrenatzaileei zuzenduta daude. alde batetik, ikastaro orokorrak daude, edozein kiroltara dedikatzen diren teknikariei zuzenduta-koak. Bestetik, pilota, eskuba-loi eta futbolarekin lotuta, urtean bi orduko sei saio eskainiko dira kirol bakoitze-ko. Ikastaroetan parte hartzeagatik ez da matrikularik ordaindu behar.

Manu Villar Batzar Nagusietara

Batzar Nagusietako batzorde eraketarekin batera, jakin ahal izan dugu Manu Villar, Eskoriatzako alkate ohia, Garraio eta Errepideen ardura izango duen Batzordearen Lehendakaria izendatua izan dela.

Lokalak herriko rock taldeentzat

Irailaren 24ean ospatu zen Udal Bilkuran erabaki zen herriko 9 rock taldeen artean polikiroldegian dauden lau lokal banatzea. Eskaera hau gazteria sailean aztertu ondo-ren heldu zen udal bilkurara. Elektrizitate instalazioak udalaren bitartez ezarriko dira baina lokalak taldeek eurek atondu eta zaindu beharko dituzte.



EDURNE
ESTETIKA ZENTRUA

Aranburuzabala, 42
Tfnoa.: 943 71 51 54

ARISTIDES

BAINU INSTALAKETAK, GASA ETA KALEFAZIOA
Otalora, 9 • Tfnoak: 943 791323 - 943 794267
ARRASATE - MONDRAGON


Arantzazuko erromesaldia

Urtero bezela Irailaren 19an, Iraileko hirugarren Igandea, herri moduan egokitzen zaigun erromesaldia burutu zen Arantzazuko Saindutegira. Bertara eskoriatzar mordoxka hurbildu ziren eta era ezberdinetan heldu ere: Parrokiak ipinitako autobusez, kotxe partikularrez eta oinez, bai Oñatitik gora eta bai mendirik mendi, modu tradizionalan, Eskoriatzako herriko plazatik irtenda goizeko seiak aldean.

Erromes hauek Eskoriatzako erretorea den Xabier Gomez buru zutela eta Joxe Pagaldairen gidaritzapean, lau bat ordutan bete zuten

egin beharreko ibilbidea eta Arantzazura iristean, baita ere ohitura den legez, bertan kokatua dagoen elkarte frantziskotar kristauaren aldetik ongi etorria jaso zuten.

Ondoren, ekitaldi erlijiosoekin hasteko, aitortza komunitario bat ospatu zen, eta berehala eguerdiko hamabietan Meza Nagusia; Xabierrek eman eta Eskoriatzako udaleko lau ordezkarien presentziarekin, Edorta Zubizarreta, Alkate berriaren lehendakaritzapean, Segura Irratiaren bidez, Gipuzkoako hainbat tokitara zabaldu zena.




Arantzazura iritxi berriei ongi etorria.

Ostean bazkari bat izan zen, berrogeien bat lagun bildu zirelarik, Udaletxeko ordezkariak barne. Arratsalde erdi inguruan amaitutzat eman zen erromesaldi eguna.

Aurreko urtetako partaidetza izan da odol emate kanpainan

Irailaren 21 eta 28an eta urriaren 5ean odola emateko aukera izan genuen hamazortzi eta hirurogeita bost urte bitarteko eskoriatzarrok eta kanpaina honetan jendeak aurreko urteetan antzera erantzun du. Guztira, ia ehun lagunek eman dute odola Eskoriatzan eta gehiengoak emakumeak izan dira.

Hala ere, María Valencia medikuaren esanetan <<jende asko etorri da odola emateko gogoz baina ezin izan du eman gripea zuelako edo eta pearcing-a eta horrelakoak edukitzeagatik>>. Odola emateko baldintza batzuk bete behar dira baina tartean, besteak beste honako hauek kontutan izan



behar dira: Tatuaiak edo pearcingak dituenak gutxienez urtebete itxaron behar du odola eman aurretik. Bestalde, toki exotikoetara bidaiaria egin duenak ere ezin lezake odolik eman sei hilabete aurretik.

Dena den, orain odola emateko aukerarik izan ez baldin baduzu,

edozein ospitaletan duzu aukera odola emateko. <<Litro erdi baino ez dute kentzen eta gorputzaren mekanismoari esker aste gutxitan berreskuratzen da>> adierazi zuen medikuak. Odol emaleen elkarteak azpimarratu nahi izan dute zeinen garrantzitsua den jendeak horrelako kanpainetan eta bestela ere behar honi erantzutea, odola behar beharrezkoa baita ospitaletan eta, zoritxarrez, gizakiok baino ezin dugu sortu.

Kanpaina honetan medikuaz gain, bi herizain, odol emale elkarteko arduradun bat eta ambulanziazaren gidaria aritu dira jendea atentitu eta medikuari laguntzen.

Benta Motz

Taberna

Tel. 943 71 48 22

Txalaparta

Jatetxea

Tel.- 943 71 50 46



OSTATU


Jatetxea

Tfnoa.: 943 71 53 71

LEINTZ GATZAGA

JESUS GARMENDIA

Humanitateak eta Hezkuntza zientzien Fakultateko dekanoa.



1. Zenbatgarren ikasturtea duzu aurtengoa zuzendari bezala?

Hemengo beteranoetako bat naiz, duela 23 urte hasi bainintzen klaseak ematen. Zuzendari gisa, bi arotan ihardun dut eta, guztira, hamasei urte daramazkit. Hala ere, zuzendari naizen arren, klaseak ere ematen ditut. Irakasle gisa aukera dut ikasleekin eta beste irakasleekin harreman estuagoa izateko. Horri esker unibertsitateko eguneroko jardueran integratuago sentitzen naiz eta hori benetan garrantzitsua da niretzat; Bestela, burokratak edo administrariak baino ez genuke emango.

2. San Viator zuen beharretara nola egokitu da? Aldaketa nabarmenik egin al duzue?

Moldaketak egin ditugu bai, baina, betiere eraikinaren estruktura funtsezkoenak errespetatuz.

3. Fakultate honetan zein karrera ikasteko aukera dago?

Alde batetik, Magisteritza dugu eta honek hiru espezialitate ditu: Atzerriko Hizkuntza, Haur Hezkuntza eta Heziketa Berezia. Bestetik, Humanitateak eta Enpresa duela bi urte sortu genuen karrera. Datorren urtean, berriz, hirugarren bat ere izango dugu: Psikopedagogia. Hau ere hezkuntzaren testuinguruan kokatua.

4. Karrera guztiak al dira euskaraz?

Orokorean bai. Humanitateak eta Enpresak lizentziaturan kurtsoko bizpahiru irakasgai gazteleraz emateko aukera ere egin dugu. Ikaslearen formaziorako beharrezko ikusi dugu horiek gazteleraz ematea eta ingelesez denik ere bada.

5. Nola banatu dituzue fakultate honek orain dituen bi eraikinak?

Karrera biek izango dituzte klaseak eraikin bietan. Zerbitzuak ere bi eraikinetan banatu ditugu, hala nola: liburutegia eta delegatuen gela Irakasle eskolan, taberna San Viatorren, irakasleen bulegoak bietan...

6. Zenbat ikasle eta irakasle jasoko ditu aurtengoa Fakultateak?

Guztira, 540 ikasle ekingo diote 99-00 ikasturte honi. Aurrera begira, berriz, fakultate honek 800 ikasle hartzeko kapazitatea izango du baina oraindik egoitzaren moldaketaren lehenengo fasea besterik ez dugu egin. Irakasleak, berriz, guztira 50, erdia inguru egun osoz etortzen dira lanera eta gainontzekoak orduka.

7. Urte hauetan aldaketa ugari jasaten ari gara Eskoriatzan, unibertsitateak bizitasuna eman dio herriari baina aldaketa horiek fakultateari zer ekarri diote?

Mondragon Unibertsitatean sartu aurretik ere magisteritzak gorakada jasan zuen baina azken urteotako gorakada hori izugarria izan da. Nik uste Mondragon Unibertsitatean Irakasle Eskola sartu izanak eragin nabarmena izan duela, honi esker gorpuztu baitugu fakultate hau ere. Unibertsitatean sartzeak ahalbidetu zigun, besteak beste, Humanitateak eta Enpresa Zientziak karrera berria garatzea eta baita San Viator egoitza eder hau erostea ere. Honekin guztiarekin, fakultateak nortasun sendoagoa hartu du eta, honenbestez, zerbitzu hobea eskaintzea, izateko modu berri bat eta herriarekin harremanak areagotzeko posibilitatea eman digula iruditzen zait.

8. Orainarte Irakasle Eskola eta Eskoriatzako udaletxearen arteko harremanak ez dira oso estuak izan, bi organu juridiko guztiz independente lez funtzionatu izan dute naiz eta biak herri berdinean egon. Harreman hori zein aspektutan hobetu daiteke?

Bai, urteetan hala gertatu da eta egia esan guk ez dakigu zergatik. Izan ere, Irakasle Eskola

Eskoriatzan egonik guk beti pentsatu izan dugu herriarekin gaudela eta animikoki ala egon gara. Behar izan denean gure lokalak herriko talde ezberdinei utzi izan dizkiegu: abesbatzari, Alkoholiko Anonimoei, parrokiari... baina, hala ere, gure inpresioa da herrian integratzeko gure ahalegin horiek hutsalak izan direla. Harremanak areagotu behar dira eta hau esatean itxaropena badut aurrerantzean hartueman estuagoak izango ditugula. Ikusi beharko da unibertsitateak zertan duen herriaren edo udaletxearen beharra eta alderantziz. Garrantzitsua da korrespondentzia hori egotea.

9. Humanitateak eta Enpresa lizentziaturaren 3. ikasturteari ekin diozue aurten. Zein balorazio egin zenezake?

Oraindik goiz da balorazioak egiten hasteko, emaitzak lehen promozioa atera eta gero ikusiko dira. Hasieran ematen du ikasketa honen funtsa ulertzea kostatzen zaiola ikasleari, baina, orohar emaitza onak atera dira. Gaiak ez dira guztiz teorikoak; liburuez gain enpresetan egindako praktiken esperientziatik ikasteko aukera dute eta honek konprezio bat ematen dio ikasketa honi. Karrera honetatik jasotako formazioarekin, enpresako arlo tekniko orokorrak ezagutzeaz gain alderdi humanoak ere menperatuko ditu profesional honek. Baina, karreraren aplikazioa eta garapena aurrerago, enpresetan bertan, ikusi beharko da.

Bestalde, Mondragon Unibertsitatea MCCren babesean egoteak abantaila ematen dio ikasketa honi, karrera hau ez baitugu guk soilik diseinatu, talde oso bat dago horren atzean. Enpresetan geroz eta inportanteagoa den alderdi bat dago: pertsonen arteko harremanak. Eta behar horri erantzutea du helburu karrera honek.

10. Eskoriatzako alkate bazina zer hobetuko zenuke herrian?

Nire ikuspuntutik, alkate banintza unibertsitatera gehiago hurbilduko nintzateke eta saiatuko nintzateke ikusten zein arlo berezi dituen unibertsitateak. Eskoriatzak dituen gauza berezietako bat, unibertsitatea izatea da. Konfidantzazko giro egokian hasiko nintzateke ikusten unibertsitatearentzat herrian zer egin daitekeen eta baita unibertsitateak zer duen herriari eskaintzeko.

Eskoriatzako Batzordeak lanean hasi dira jada.

EH ek Hirigintza eta Kulturaren ardura izango du eta gainontzeko bi komisiok, Ogasuna eta Ongizatea, EA-EAJ koalizioak eta IU k eramango dituzte.



Irailaren 22ko Hirigintzako bileran batzorde hau osatzen duten lau Lan Arloetako arduradunak elkartu ziren: Josu Azkarate, Martin Olabe, Juan Karlos Bengoa eta Hirigintzako Iñaki Uribetxebarria.

Legealdi berri honetarako Batzordeak oportetara joan aurretik erabaki ziren eta irailean hasi dira jada lanean. Lau dira Batzorde horiek: Hirigintza, Ogasuna, Ongizatea eta Kultura. Lau batzorde horietan banatuta daude udalak aurrera eramaten dituen Lan Arlo ezberdinak.

EH k bi Batzordetako ordezkariak dauka: Hirigintzan, Inaki Uribetxebarria eta Kulturaren, berriz, David Arrieta. EAJ-EA koalizioak Ogasunaren ardura izango du eta Batzorde honen ordezkaria Juan Carlos Bengoa izango da legealdi berri honetan. Azkenik, Ongizate Batzordeaz arduratuko dena, IU ko Javier Zugasti izango da.

Batzorde hauetako bilerak, normalean, hilean birritan egingo dira eta bilera horietan parte hartuko dute Batzorde bakoitzaren barruan dauden sail ezberdinetako arduradunak eta zinegotziak. Mahai gainean arduradun hauek euren alorrean egin beharreko iharduerak izango dituzte aztergai eta behin gaiak guztien artean aztertu ondoren aurrera eraman daitezkeenentz erabaki beharko dute.

Horretarako botazioa egingo da. Botazio horietan alderdiaren botua hartuko da kontutan eta ez

Hirigintza: Zer esana izango duten gaiak pil-pilean

Hirigintza arloan zer esan han-dia izan ohi duten gaiak aztertzen dira eta herritarrengan ere, agian, batzorde honetako gaiak sortzen dute jakinmin handiena, bertan hartzen diren erabakiek eragin zuzena baitute eskoriatzarrongan. Asteazkeneko bi-leran, honako gaion inguruan eraba-kiak hartzekotan gelditu ziren:

1. Lurzoru ez-urbanizagarrietan etxebizitza unifamiliarrak egiteko lizentziak ematea: Hirigintzako oniritzia jaso duen arren, azken erabakia iraileko Udal Bilkuran hartuko da.
2. Solarium-a eta haurren piszina egiteko proiektua: atzera utzita zegoen proiektu hau aurrera eramatea erabaki da. Proiektu honek 30 milioi inguruko kostea izango du.

Iruzkinak egiteko eta xehetasunak komentatzeko ere aprobetxatu zuten bilera hau: Alde batetik, Eskoriatzako alde zaharra birmolda-tzeko (Plan PERCHE izenez ezagu-tzen dena) proiektuari dagokionez, proiektu berezi honek aurreikusten dituen hiru sektore

ezberdinak batu-ko lituzkeen aurreproiektu globala egitea proposatu zen. Aurreproiektu honekin lortu nahi da hiru sektore horien azpiegituran nolabaiteko batasuna egotea. Bestalde, taberna eta hosteleritza zerbitzuei dagozkien ordenantza propioak ateratzea ere planteatu dute. Eskoriatzako udalak orainarte ez zuen alor horiek arau-tzen zituen lege propiorik, baina, aurrerantzean lege zehatz batzuk arautuko dute horrelako zerbitzuen irekitzea.

Aretxabaleta eta Arrasate udalerrien ordenantzak aztertu dira eta biak antzerakoak direnez, Eskoriatzako udalak ordenantza propioak atera aurretik, beste herriren batzue-takoak ere kontsultatuko dituela jakinarazi du.

Horrelako gaiak prozedura luzea izan ohi dute, ez dira ez gaue-tik goizera egiten diren horietakoak! Baina horrek ez du esan nahi bazte-rrean utzi behar direnik eta betiere jarraipen bat eman behar zaie.

sail bakoitzeko ordezkariarena.

Erabakiak hartzeko hamaika

botutik sei baiezko atera beharko dira. Astelehenero alkateak bilera

HIRIGINTZA

ONGIZATEA



Ordezkarria:
Iñaki Uribetxebarria, EH
 - Injenerutza teknikoa bukatzeke.
 Proiektu teknikaria Fagor
 S.coop.(Garagartzako sukaldeetan)
 - 49 urte
 - Udaletxean lehen aldia.



Ordezkarria :
Javier Zugasti, IU
 - FP1. Eusko Jaurlaritza
 - 46 urte
 - Udaletxean 4 urte

SAILAK ETA ORDEZKARIAK


SAILAK ETA ORDEZKARIAK

1. **Hirigintza:** Iñaki Uribetxebarria, EH
2. **Zerbitzuak eta Obrak:** Juan Karlos Bengoa EA-EAJ
3. **Ingurugiroa:** Josu Azkarate, EH
4. **Elizateak:** Martin Olabe, EEE


1. **Ongizatea:** Javier Zugasti IU
2. **Drogadependentzia:** Iñaki Astiazaran, EA-EAJ
3. **Garbitasuna:** Javier Zugasti, IU
4. **Gazteria:** Josu Azkarate, EH
5. **Emakumea:** Dorleta Kortazar, EH

OGASUNA

KULTURA



Ordezkarria
Juan Karlos Bengoa EA-EAJ
 - Geografian eta Historian
 lizentziatua
 - 32 urte
 - 8 urte udaletxean



Ordezkarria:
David Arrieta EH
 - COU- Osakidetza
 - 35 urte
 - Udalean lehen aldia

SAILAK ETA ORDEZKARIAK

SAILAK ETA ORDEZKARIAK

1. **Ogasuna:** Edorta Zubizarreta, EH
2. **Ondarea:** Juan Karlos Bengoa, EA-EAJ
3. **Industri eta Lanbide Zustapena:** Javier Zugasti, IU
4. **Turismoa:** Martin Olabe, EEE

1. **Kultura eta jaiak:** David Arrieta, EH
2. **Kirolak:** Oscar Garcia, PSOE
3. **Euskera:** Mainer Otamendi, EA-EAJ
4. **Heziketa:** Mainer Otamendi, EA-EAJ

izango du dagokion Batzordeko arduradunarekin eta arduradun honek aurreko Batzordeko bileran hartutako erabakien kontsulta egingo dio alkateari.

Batzordeetako bileran adostasunik izango ez balitz gai hori hileko azken ostegunetan izaten den Udal Bilkurara eramango litzateke.

Herritarrok ditugun kezka, ardura edo bestelako proposamenen kontsulta egin geniezaiokegu gai horren ardura duen Lan Arloko edo eta Batzordeko ordezkariari, honek hurrengo Batzordeko bileran gai hori mahagainean ipini dezan.

**BAZAR
LEINTZ**

Opariak, etxeko tresnak
eta jostailuak

Olazar, 8 • Tf. 610 905576

JOXERRA ESKIBEL PAMIRREKO DORREETAN BIDE BERRIAK MARRAZTEN

"Eskoitzarrok Munduan" tarte hau ireki berri, gure bigarren gonbidatua izan zen Joxe Ramon Eskibel, eta Pakistango lur eta mendiak gertuago ikusi genituen berarekin. Baina badirudi gogoia, dirua eta eskalatu ahal izateko hormak dauden bitartean gelditu barik ibiltzeko asmoa duela 28 urteko gazte honek, pasa den Uztailean Asiarako bidea hartu baitzuen berriz, beste bost lagunekin batera. Beraien helburua, Pamir mendietako horma amaigabeetan, bide berri bat irekitzea.

Eskalatzeko materialez betetako 50 kilotako pardela bizkarrean hartu eta "eskuko poltsa" hegazkinean ia sartu ezinka, han habiatu ziren pasa den Uztailaren 18an Joxerra Eskibel eta bere bost lagunak Bilboko aireportutik.

Alberto Zeberio bilbotarrak, Igor Mendizabal mutrikuarrak, Rafa Santesteban eta Iñaki Gomez iruñearrek (orain urte batzuek direla Patagoniako Paineiko Dorreetan "Insumisioa" bidea irekitzeagatik ezagun egin zirenak) eta Juan Hernandez zaragozarrak osatzen zuten espedizioa, esperientzi handiko taldea osatuz. Frankfurten eskala egin eta gero, Asian barrena jo zuten, Sobiet Batasuna zenaren

"AMALUR" du izena egindako lanaren fruituak

mugaraino. Uzbekistango hiriburuan utzi zituen hegazkinak, Tashkenen, eta bertan, Kirgiziaraino eramango zituen furgoneta alokatu zuten, Uzbekistan eta Tayikistan zeharkatu, eta Uzgoruzeraino, hiribururaino, joan ziren.

Jende jatorra aurkitu omen zuten bidean, eta ezagututako lekuek ere, inpresio ona egin zieten haseran. "Janari guztia han erosi genuen, eta denetarik aurkitu zitekeen dendatan. Tranbia eta guzti dago Uzgoruzen,

hiriburuan, baina gauza guztiak oso utzita daudela igerrida". Garai bateko komunistek utzitako herentzia, alegia. Oraindik beste hiru egun behar izango zituzten, oinez, Aksuko bailarara, Pamir mendietako magalera heldu arte.

Aksu-k, ur zuria esan nahi du bertakoen hizkuntzan, eta denera 30 egun egin zituzten taldeko kideek bailara hartako izugarritzko hormen itzalpean, lanean. Eta "AMALUR" du izena egindako lanaren fruituak.



Egun asko egin dituzte haitzean zintzilik




**Ezkerreko
argazkian
Joxerra bertako
ume batzurekin**

**Beheko argazkian
Joxerra eta bere
lagunetariko bat
jeiki barri**

Oraindik inor ibili gabe zegoen orratzean, A3+ 6b mailako bidea ireki zuten; hamar egun behar izan zituzten harrizko 750 metro haiek igo eta 3.850metrotan jartzeko, hasierako 200 metroak ekipatzen ibili eta gero.

Hala ere, han ibili direnaren arrastorik ez dute utzi, hamakak zintzilikatzeko spit batzuk ezik, erabilitako material guztia jaso bait zuten jeitxieran. Eta azkenean, denbora zutela eta, lehenagotik beste talde batzuek igota zuten bide bat errepikatu zuten, "Perestroika crack" izenekoa, A2+ 7a mailakoa haxe.

Azkar igaro, baina emankorrak izan diren bost aste pasa dituzte beraz, Joxerra eta bere lagunek Kirgiziako lurretan. Orain, negua gainean dugunean, lurralde eta jomuga berrietan pentsatzeko ordua heldu da.



BANDOA

Espaloietan aparkatutako kotxei buruzkoa

Indarrean dauden legeek espaloietan kotxeak aparkatzea debekatzen badute ere, eskoriatzar asko dira azkenaldi honetan Aranburuzabala kaleko eta San Juan kaleko espaloietan kotxeak aparkatzeko ohitura hartu dutenak. Horiek horrela, Bando honen bitartez jakinarazi nahi dizuegu irailaren 20tik aurrera espaloietan aparkatutako kotxei isunak edo multak jartzen hasteko eskatu zaiola Ertzaintzari.

Alkatea


Udalak hartutako erabaki honen aurrean zein da zure iritzia? Nola konponduko zenuke aparkalekuen arazoa?

**Mª Mar Arebalo de la Torre**

- Erabakia ondo hartuta dago. Espaloietan autoak badaude zirkulazio arazo handiak egoten dira au-tobusekin etab.

- Konponbide zaila ikusten dut, dena den, ez da kale arazoan arazoa bakarrik. Gainera, arazoa ez da apar-kaleku gabezia dagoela

soilik. Jendeak ohitura txarrak ditu: kale erdira etorri kotxeekin eta askotan nahi izaten dugu dendaren muturretan uztea...


**Karlos Navarro**

- Kotxeak aparkatzeko lekurik egon ezean espaloi gainetan edo nonbaiten aparkatu beharko ditugu. Apar-kleku nahikorik ez dugu eta hori da arazoa. Bestalde, zirkulazio handia egoten den kaleetan eta beste leku problematiko batzuetan isunak jartzea normala iruditzen zait.


Aranburuzabala kalean, adibidez, sarritan autobusek ezin izaten dute pasatu kotxeek traba egiten dutelako.

**Mariela Lopez Hernán Gómez**

- Multak jarri aurretik hobe legoke aparkaleku gehiago egitea. Baina, gaizki ikusten dut kale horietan gertatzen ari dena, adibidez: albo-ko tabernara joateko taberna aurrean kotxea traban ustea... kasu horietan zilegi deritzot isunak jartzea.

**Julian Oyanguren**

- Nire ustez, lehenengo gauza aparkalekuak ipintzea da eta geroztik, behar ez den lekuetan kotxeak utziz gero multa ipintzea, oso ondo ikusten dut. Aparkaleku gabezia da dugun problematika.

**Jose Mª Romaratezabala**

- Multak botatzea ez dugu inork gogoko, baina, batez ere, gazte jendeak ohitura txarrak dituzue eta... Aranburuzabala kalean kotxeak espaloietan aparkatuta daudelako norberak kaminora irten behar du eta autobusak ere gaizki ibiltzen dira pasatzeko. San

Juan kalean ere, istripuak izateko arrisku ikaragarria izaten da. Horregatik, kale horretan multa rigurosa ezarri beharko litzatekeela uste dut.

- Aparkaleku problema handia dugu, berriak nonbait egin beharko dira. Dorletan erreka aldera horma altxatuz egin daitezke zenbaitzuk.

**Maritxu Alegria Uribebarria**

- Multak ipintzea oso ondo, fenomeno, iruditzen zait zeren traba handia egiten dute: etxetik irten ere ezin da egin autoak etxe aurrean aparkatuta daudelako edo, erosketako karroekin kamino erdira irten behar izaten dugu kotxeak gaizki aparkatuta daudelako (horrek da-

karren arriskuarekin) eta berdin gertatzen zaie umetxoan karrotxoekin espaloia gurutzatu behar dutenei. Espaloiak pertsonak ibiltzeko dira eta ez autoak aparkatzeko!

- Konponbideak bilatu beharko dira. Hasteko, Unibertsitateko eta irakasle eskolako aparkalekuak ere herriarentzat ere izan daitezkeela jakitea albiste pozgarria izan da benetan. Baina, herritar askok eurek dituzten ohitura txarrak aldatu beharko litzuketela iruditzen zait, kalera txikiteoan etortzeko ez dago kotxe beharrik eta!

EGAS

ESKORIATZAKO GAZTE ASANBLADA



**KUADRILEN
ARTEKO
OLINPIADAK
egitea, ez dago
gaizki pentsatua,
ezta?**

Urriaren 16an ekingo jake **OLINPIADEI**: Goizeko 12etan danok plazan elkartu eta goiza girotukou: **Bizikleta poteue** egingo gau, mapa eta guzti, Tourrien moduen ibilbidie markaute egongo da. Kilometro batzuk ein da gero, kantzaute eta gosetute be egongo garenez,, **bazkaixe** eingou plazan. Bazkalostien, **txiste kontalarixek** nehikue barre eraingo dozkie.

Holan, animuek topera daukoela Olinpiadako suziri xe ixotukou eta Olinpiadak ofizialki inaguraukoittugu. Txalaparta hotsa lagun eta akaso batorenbat irrintzirenbat botaten be animauko jaku. Arratsaldien, **Herri Kirolaetan** hartukou parte: sokatirrie, uzta biltzie, sakukarrerak, asto karrerie... danetik apur bat.

Baina hau hasierie baino ez da. Olinpiadak hiru larunbatetan jarraixen ospatuko die. Bigarren larunbatien **betiko kirol modalidadiek** (futbola, saskibaloia...) **mahai jokuak** (futbolina, pin-pon, karta jokuak...) eta **ur jokuak** einaz, pistinan jolasien ibilteko aukerie be eukikou. Azken larunbatien barrez, **Elizatietatik ibilaldixe** eitteko asmue dau. ibillaldi hau egun osokue izengo da eta gazte askoi aukerie emungo dozku Eskoriatzako elizatiek ezauketako. Bueltan herriko plazan afari merixendie eingou: Gazte Asanbladak bokadillo postue ipiniko dau. Bokadilua janaz herriko plazan jarriko dan **pantaila erraldoian Olinpiadetako irudi onenak ikusteko aukera eukiko gau!**. Gauean musika taldeak izango die plazan eta horrela amaiera emungotzau aurtengo olinpiadei, hurrengo urtean geixau eta hobie!: izengo dien itzaropenez.

Ba, badakitzu e gazte! betiko prixak, lotsak eta dana dalako eskusak alde batera itxi eta animau ekintza honeittan parte hartzen!

Gazte Asanbladako bilerak ostegunetan 6,30ak aldera Kultur Etxien izeten die. Bilera honeittan adin eta kuadrila ezberdinetako eskoriatzarrak elkartzen gare eta bakoitzak dittuen burutazioak jaurti eta holako ekintzak aurrera eramane behar diela erabakitzen da. Hemendik aurrera, Gazte Asanbladako maskota nazenez, ez dot bilera horietan hutsik egiteko asmorik. Bertan ikusiko garelakoan, besarkada bat:

Aupa gazte!

Honako eskutitz honen bitartez nire burua aurkeztu gure neuke. Ni **TXIMAS** naz eta oso pozik nau **EGASEkoek** (Eskoriatzako Gazte Asanbladakoek) euren maskota izateko eskatu duztielako. Niretzat ohore haundixa da talde honetako kide izatie eta jakin dudanez edozein gazte izan leike Gazte Asanbladako kide.

Baina zer oindion ez dozula Gazte Asanblada ezauketan? Ba, **Gazte Asanblada eskoriatzar danei zabaldu nahi dauen gazte mugimendua da**, zertarako? Ba, **danon artien danon gustokuek dien ekintzak aurrera eraman deigun**. Lehen urratsak ekainean emun zittuen Gazte Asanbladak, San Pedruetako jaixei bukaera mundiala emuteko **aparteko Euskal Jaia** antolatuz gainera! Gogoratzen duzu, ezta?. Jai hark oso erantzun oso ona izan euen eta orduan, aski frogatua gelditu zan herritarron parte hartzea egonez, eskoriatzarrok urrun iritxi geinkiela, zergatik ez?

Pausoz-pauso ekintza geixau aurrera eramateko asmue dauko GazteAsanbladak.

Horrela, opor ostean gogotsu ekintzien bileraie eta oinguan zer asmatuko eta **KUADRILEN ARTEKO OLINPIADAK** egitea, ez dago gaizki pentsatua, ezta? Izan ere, opor ostean, laneko edo eskolako egunerokotasunean murgildurik, eguraldia ere eskasagoa eta... . Ba, **OLINPIADA** honeittan seguru animuak altzaukoittugula. **ENTZUN ONDO?**

TXIMAS

BEHARREZKO

TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 943-714407
 Udal Bulegoak 943-714532
 Udaltzaingoa 943-714407
 Euskaltegia 943-792168
 Kultur-Etxea 943-714688
 Gizarte-Laguntzailea 943-714688
 Kiroletxea 943-715328
 Liburutegia 943-714688
 Luis Eceiza 943-714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
 Almen 943-714964
 Museo-Eskola 943-714688
Ze Barri? 943-715434
 Talde Antimilitarista 943-715028
 Irakasle Eskola 943-714157
 Osakidetza 943-714452
 Telesko 943-714917
 Taxia 943-714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 943-797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800
 Renfe (Zumarraga) 943-721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 902 101 210
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 112

AZOKA

VolsWagen Combi guztiz ekipatua salgai

Tfnoa 943 -71.49.15

JAIOTZAK

99-8- 3 Josu de La Torre Navas
 99-8- 8 Ane Arrieta Umeriz
 99-8-24 Arane Zubia Gainzarain
 99-9-10 Maialen Zugasti Zufiria
 99-9-14 June Larzabal Sanz
 99-9-20 Antton Salaberria Beitia
 99-9-18 Julen Zubiaga Isarzelaia
 99-9-24 Dorleta Ezeiza Barrutia

EZKONTZAK

99-9-4 Felix Arrese Garciaetxabe eta
 Domi Lezeta Olaziregi

KONTZIENTZI ERAGOZPENA

* Intsumisioa edo objezioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Arrasateko Gazte Bulegotik eta bertan emango dizugu paperak tramitzatzeko behar duzun informazioa.

UNIBERTSITATERAKO AUTOBUSAK

* Ikasturte honetan Donostia, Bilbo edo Gasteiza eguneroko joan etorria egin nahi baduzu, badaude autobus zerbitzu bereziak ikasleei zuzenduak. Informazio gehiago Arrasateko Gazte Bulegoan.

DIRULAGUNTZAK

* 1999-2000 ikasturtean unibertsitatez kanpoko ikasketak burutzeko dirulaguntzak. Epea: urriak 15.

* 1999-2000 ikasturtean zehar unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketa batzuk burutzeko izaera orokorreko dirulaguntzak. Epea: urriak 29.

LANA

* Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuak, sei fisioterapeuta postu betetzeko oposaketa deialdia egin du. Epea: urriak 10.

IKASTAROAK

* Gipuzkoako Bibliotekari eta Dokumentalisten Elkarteak, "Interneten baliabideen indizazioa eta sailkapena egiteko teknikak" gaia harturik ikastaroa antolatu du.

Hau ere Donostian burutuko da urriaren 6,7 eta 8an.

* Urtxintxa Elkarteak urteroko ikastaroak antolatu ditu: astialdiko begiralea, astialdiko zuzendaria, ludotekak, gazte lekuak, malabare tailerra, euskara suspertzailea, euskal jolasak, adierazpen tailerra, heziketa berezia, hezkidetza, drogomenpekotasunen prebentzioa eta 3. adinaren dinamizatzailerak. Ikastaroak Donostian burutuko dira. Epe ezberdinak.

ANTZERKIA

* Gasteizko nazioarteko antzerki jaialdiaren programa daukagu. Interesatuz gero, pasa zaitez bulegotik eta informazioa luzatuko dizugu.

LEHIAKETAK

* Arrasateko Gazte Zerbitzuak antolatua, X. Argazki lehiaketa "Gazteak eta 2000. Urtea" lemapean. Bi kategoria: Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak alde batetik eta 19-35 urte arteko edozein pertsona bestetik. Zuri beltzean nahiz koloretan, beste lehiaketaren baten saritu edo noizbait argitaratu gabeak beharko dute. Epea: urriak 8.

* "Tene Mujika" narrazio laburren literatur saria, Debako Udalaren eskutik. Euskarazko lanak sarituko dira, gutxienez 6 folio eta gehienez 30 folioko luzeran. Epea: azaroak 26.

ESKORIATZAKO KULTUR ETXEKO IKASTAROAK

Esku lanak

1.- Asteartetan

arratsaldean 18:15 - 20:15
 irakaslea: Reme Berasategui
 urriaren 5tik otsailaren 1era

2.- Asteazkenetan (bi ikastaro)

1.- goizean 9:45 - 11:45
 2.- arratsaldean 18:00 - 20:00
 irakaslea. Mila Akizu
 urriaren 6tik urtarrilaren 26ra

Prezioa: 3000 pezeta
 Non: Kultur Etxean (telefonoa. 71.46.88)

Pintura ikastaroa

3.-Larunbatetan (2 ikastaro)

1.- goizean 11:30 - 13:30
 2.- arratsaldean 14:30 - 16:30

irakaslea: Manu Gomez
 urriaren 2tik ekainaren 17ra

Prezioa: 2700 pezeta hiruhilabetero
 Non: Kultur Etxean




Hilabete honetan eskoriatzarrek peregrinazioa egin dute Arantzazura. Baina, duela 40 urte inguru ere jendetza handia joaten zen horrelako peregrinazioetara, argazki hau horren erakusle. Don Agustin apaiza ageri da peregrinatzaileen erdian, guztiak ere dotore dotore jantzi ziren okasiorako. Ez dakiguna da non aterata dagoen: Loiolako peregrinazioa ote da? seguru bat baino gehiagok gogoratuko duzuela.

.....
 Argazki hau non aterata dagoen dakienak deitu dezala Ze Barri?ra (tel.943-71 42 17). Eta horrelako argazki dotorerik baduzue deitu mesedez. Argazkiak irudi hutsak baino zerbait gehiago dira, horrelako argazki zaharrek oroitzapen asko ekartzen dizkigute eta merezi du erakustea.

Kirola euskaraz programa

Irabazleak behar ditugu!

**EUSKARAZ
 DENOK
 IRABAZTEN
 DUGU**



Deba arroko Udaletako Euskara eta Kirol zerbitzuak



VITO CDI



Galloper Santamo



Mitsubishi Montero Sport



Nissan Cabstar E

Aldibin *berri* ugari dituzu



S/V40 TDI



Hyundai Sonata *berria*



Aldibi autoak, S.A.



MERCEDES
Izar autoak, S. L.

VOLVO

Auto Suecia



Almovil, S.L.



Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.